



DOMUSA TEKNIK

40 MLK

26KM +1400

9:00h

65KM +3700

8:00h

AZPEITIA | 2025-05-10



GAZUME
ARROITA
SAINU

HERNIO
MURUMENDI

HIRUARRIETA
IZAZPI

XOXOTE

65km | +3700

ARGAZKIA: @guaresti

IKUSLEARENTZAKO GIDA 2025

www.domusateknik40mlk.com

Lagun Onak Mendi Bazkunak (LAGUN ONAK MB) **DOMUSA TEKNIK 40 MLK MENDI LASTERKETA**ren laugarren edizioa antolatu du. Berau Azpeitia eta inguruko herrietan (Errezil, Beizama eta Bidania-Goiatz) igaroko den 65 Km-ko mendi lasterketa izango da, 525 partehartzaile izango dituelarik.

Honako dokumentu honetan ikuslearentzako ezinbestekoa den informazioa ageri da: egitaraua eta lasterketa ikusteko gune interesgarrienak.

Lasterketa maiatzaren 10ean ospatuko da. Kirol-proba, Azpeitian hasi eta amaituko da, eta, bitartean, eskualdeko honako herri eta mendi tontorretatik igaroko da:

- Herriak: Azpeitia, Errezil, Bidania-Goiatz eta Beizama.
- Mendiak (metroak): Arroita edo Arauntza (612), Sañu (616), Gazume (1002), Hernio (1078), Murumendi (868), Izazpi (973), Hiruarrieta edo Samiño (933), Munoaundi (381) eta Xoxote (912).

Herri eta mendi hauez gain, inguruko leku esanguratsuenak ere, ahal den neurrian, jendeari erakustea izango litzateke lasterketaren nahia, hala nola, Azpeitiko tren museoa, Zelatungo bordak, Gipuzkoaren erdigunea, Beizama, Munoaundi, Burdin aroko herria, Loiolako basilika eta bere inguruak, Izarraitzeko atea, Xoxoteko aterpea, Elurtegia, Magdalenako ermita...

1. EGITARAUUA

Maiatzak 9, Ostirala.

Dorsal banaketa

- Ordua: 17:30etik 20:00ra
- Lekua: Azpeitiko Plaza Nagusian (Azoka plaza)

Maiatzak 10, Larunbata.

Dorsal banaketa

- Ordua: 06:00etatik 7:30etara
- Lekua: Azpeitiko Plaza Nagusian (Azoka plaza)

40 MLK Lasterketa (65km)

- Korralito irekiera: 7:15
- Korralito itxiera: 7:45
- Irteera ordua: 8:00
- Lekua: Azpeitiko Plaza Nagusian

15 MLK Lasterketa (26km)

- Korralito irekiera: 8:30
- Korralito itxiera: 8:45
- Irteera ordua: 9:00
- Lekua: Azpeitiko Plaza Nagusian

40MLK Lasterketa itxiera (65km)

- Ordua: 20:00
- Lekua: Azpeitiko Plaza Nagusian

15MLK Lasterketa itxiera (26km)

- Ordua: 14:00
- Lekua: Azpeitiko Plaza Nagusian

Lasterketaren amaieran **parte hartzaile guztientzat paella eskainiko da** Azpeitiko Plaza Nagusian LAGUN ONAK MB-ren eskutik.

Gune bereziak

Anoa gune urdina (IKASBERRI)

- Egun osoan zehar ekitaldiak, puzgarriak, jolas inklusiboak,...

Xoxote (Xoxoteko aterpetxea)

- Paella jana 12:30etatik 14:30etara. Tiketak salgai egongo dira bertan 5€-ren truke.

APIRILAK 5 (Egun Urdina eta Boluntarioen eguna)

10:00	Trail Martxa Urdinaren hasiera
12:00	Trail Martxa Urdinaren iritsiera
12:30	Jana eta edaria haurrentzako
18:00 - 20:00	Boluntarioen kamixeta banaketa
19:00	Boluntarioen ekitaldia eta zozketak
20:00	Lunch-a
20:30 - 22:30	Oihan Vega DJ

MAIATZAK 9

10:30	Inma Boscá eta Toni Ibañez-en hitzaldia Soreasu Antzokian (Azpeitia) LH5 eta LH6-ko ikasleentzat
15:15	Inma Boscá eta Toni Ibañez-en hitzaldia Baztartxo Antzokian (Azkoitia) LH5 eta LH6-ko ikasleentzat
17:00 – 19:30	Baserritarren Azoka Berdura Plazan
17:30 – 20:00	Dortsal banaketa Azoka plazan

MAIATZAK 10

6:00 – 7:30	Dortsal banaketa Azoka plazan
7:15	Domusa Teknik 40 MLK Korralitoa
7:45	Korrikalari esanguratsuen aurkezpena
8:00	Domusa Teknik 40 MLK irteera
8:30	Domusa Teknik 15 MLK Korralitoa

Korrikalari esanguratsuen aurkezpena

8:45

Domusa Teknik 15 MLK irteera

9:00

Domusa Teknik 15 MLK lehen korrikalaria helmugan

10:55

Gune Urdinean puzgarriak eta jolas inklusiboak

11:30

Gune Urdinean Eusko Label-en eskutik pintxo eta edariak

12:00 – 16:00

Domusa Teknik 40 MLK lehen korrikalaria helmugan

13:45

Domusa Teknik 40 MLK lehen emakumea helmugan

15:00

DJ OLBER plazan

15:00 - 20:30

AZKETA ahots taldea plazan

18:30

Domusa Teknik 40 MLK azken korrikalariari ongi etorria

20:00

Sari banaketa plazan

20:15

Elektrotzaranga Perez Arregi plazatik (antolatzailea AZTE)

20:30

**Sanagustin Kulturgunean URTZ eta ERALDATZEN-en
kontzertuak (antolatzailea Kulturaz)**

22:00

GUNE URDINEAN

Domusa Teknik 15 MLK lehen korrikalariari ongi etorria

9:55

Sentsibilizazio jolasak eta Photocall Urdina

11:00 - 13:00

Puzgarriak eta jolas inklusiboak

11:00 - 18:30

Domusa Teknik 40 MLK lehen korrikalariari ongi etorria

12:30

Eusko Labelen eskutik pintxo eta edariak


12:00 - 16:00

Domusa Teknik 40 MLK azken korrikalariari ongi etorria

17:45

2. LASTERKETA NON IKUSI

Lasterketaren ibilbideak hainbat aukera ematen ditu lasterketa ikusteko. Ondorengo grafikan ikusten dira puntu esanguratsuenak.




Ondoren, autoz zein oinez joan daitekeen hainbat puntu interesgarrienak aipatzen dira, korrikalariak gutxi gorabeherako pasako diren ordua adieraziz.

	Puntu KM	Aurrena	Azkena
AZPEITIA	0	08:00	08:00
Arroita tontorra	3,2	08:16	08:45
Sañu tontorra	4,5	08:23	08:55
Etumeta	7,1	08:37	09:15
Komuzulotza Anoa gunea	8,7	08:46	09:30
Gazume tontorra	11	08:58	10:09
Zelatun	12,4	09:06	10:25
Hernio tontorra	14	09:15	10:45
Iturburu Anoa gunea	19	09:42	11:20
Maramendi lepoa Anoa gunea	27	10:29	12:40
Murumendi tontorra	29,5	10:39	13:16
Mandubi Anoa gunea	33,9	11:03	13:55
Izazpi tontorra	38,6	11:29	15:00
Pagotxeta Anoa gunea	41,6	11:45	15:20
Samiño tontorra	43	11:53	15:51
Larrume txiki Anoa gunea	48,3	12:22	16:39
Ikasberri Anoa gunea	53,8	12:52	17:20
Langa Anoa gunea	56,8	13:08	18:00
Xoxote tontorra	58,3	13:16	18:55
Xoxote Anoa gunea	59,7	13:24	18:57
AZPEITIA	65	13:53	20:00


AUTOZ

ITURBURUKO ANOA POSTUA




19. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 9:30 aldera pasako da eta azkena 11:20 aldera.

Anoa postutik 300 metrotara, aparkaleku bat dago. Autoak han utzi eta oinez joateko aukera dago anoa gunera. Bestalde, GI-2634 errepidean Azpeitia-Tolosa noranzkoan, ezkerreko errail bat bideratuko da autoak aparkatzeko. Norbaitek Tolosa aldetik Azpeitiaruntz joatea nahiko balu, GI-3440 errepidea hartu beharko du Bidanian, Urrakiko mendatetik joanaz.




<https://goo.gl/maps/kmZrc6GxS7SxQvGj7>

MANDUBIAKO ANOA POSTUA




33,9. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 11:00 aldera pasako da eta azkena 13:55 aldera.

Mandubiko Bentan (Jatetxea) autoa aparkatzerik ez da egongo, baimenduek eta bertako langileak izan ezik. Aparkalekuan bertan egongo da anoa postua. GI-2635 errepidean ezingo da inondik inora autorik aparkatu. Horretarako, GI-3197 errepidea noranzko batekoa izango da ezkerreko erraila autoak aparkatzeko erabiliko delarik (Mandubia-Garin). Norbaitek Azpeitira bueltatzea nahiko balu, beheko bidegurutzeraino (Salbatore) jaitsi beharko du eta ondoren GI-2635 errepidea hartu Beasain-Mandubia noranzkoan.




<https://goo.gl/maps/qUXcgF5PY9o2rQBt8>

IZARRAITZEKO ATEA



53,8. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 12:30 aldera pasako da eta azkena 17:10 aldera.


Hemen autokarabanen aparkalekua egongo da kokatua. Autoentzako aparkaleku mugatua izango da, ez da komeni autoz bertaraino gerturatzea. Anoa gunee egokia duzue umeeekin etortzeko. Bertan, Anoa-gune URDINA denez, puzgarriak, jolasak, musika, jatekoa, eta abar egongo bait da.



<https://goo.gl/maps/U35btsFWQAa4V5o28>


OINEZ

KOMIZULOTZAKO ANOA POSTUA




8,7. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 8:40 aldera pasako da eta azkena 9:45 aldera.

Kotxez Etumeta auzora joan behar da eta errepide ertzean autoa kontuz aparkatu ondoren, oinez 2 Km-tara aurkitzen da anoa postua. Esan beharra daukagu, errepidea oso hestua dela eta 2 kotxe justu kabitzen direla errepidean, beraz, kontuz ibili. Trafiko asko ibil daiteke egun horretan.




<https://goo.gl/maps/eKKRVMvtoyypwTpw8>

ZELATUNGO BORDAK




12. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 9:00 aldera pasako da eta azkena 10:00 aldera.

Autoa Errezil-zein Iturriotzen utzi eta 1h30min inguruan igo daiteke Zelatunera. Bertan, zerbait jan edo edateko, Zelatungo Bordak dituzue. Ibilbidean Gazume edota Herniora igotzeko aukera ematen du.



XOXOTE



59,7. kilometroan dago kokatua eta lehen korrikalaria 13:15 aldera pasako da eta azkena 19:00 aldera.

Azpeitin edo Attolan autoa utzi eta 1h30 inguruan Xoxotera igo daiteke. Bertan Xoxoteko Aterpetxea daukazu zerbait jan edo edan nahi izanez gero eta gainera, 12:30etatik 14:30etara, **Paella eskainiko** da 5€tan. Tikitak bertan erosi ahal izango dira.

